

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2020ko ekainaren 16tik 22rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

Estatu Aldizkari Ofiziala 2020/06/17

- Ebazpena, 2020ko ekainaren 4koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, ekonomia eta industria digitalaren sektoreko enplegurako lanbide prestakuntzarako Estatu Akordioa erregistratzen eta argitaratzen duena. [2020-6278 xedapena - 7 orri.](#)
- Ebazpena, 2020ko ekainaren 4koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, ogitarako irinaren eta semolaren sektoreko enpresentzako hitzarmen kolektiboa erregistratzen eta argitaratzen duena. [2020-6281 xedapena - 41 orri.](#)

Estatuto Aldizkari Ofiziala 2020/06/19

- Ebazpena, 2020ko ekainaren 10ekoa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen diren ogitarako irinaren eta semolaren sektoreko enpresentzako hitzarmen kolektiboko ordainsarien berrikuspena eta 2019ko behin betiko ordainsariak, eta 2020rako behin-behinekoak. [2020-6453 xedapena - 4 orri.](#)

Estatuto Aldizkari Ofiziala 2020/06/22

- Ebazpena, 2020ko ekainaren 11koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, notarioen eta enplegatuen estatuko II. hitzarmen kolektiboaren 2020rako ordainsarien berrikuspena eta dagokion ordainsarien taula erregistratzen eta argitaratzen dituen.- [2020-6567 xedapena - 3 orri.](#)

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2020/06/16

- **OGASUN MINISTERIOA.- Ogasun Publikoaren zordunak.-** HAC/530/2020 Agindua, ekainaren 3koa, zeinaren bidez garatzen den Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorra partzialki aldatzen duen irailaren 21eko 34/2015 Legearen azken xedapenetako hamargarrena, eta honako eredu hauek onartzen dituen: 770 eredu, "Berandutze-interesen eta errekaraguen autolikidazioa, Zergei buruzko Lege Orokorraren 252. artikuluan ezarritako borondatezko erregularizaziorako" eta 771 eredu, "Espainiako Zerga Agentziaren egoitza

elektronikoan eredurik eskuragarri ez duten kontzeptu eta ekitaldien kuoten autolikidazioa, Zergei buruzko Lege Orokorren 252. artikuluan ezarritako borondatezko erregularizaziorako”, eta horiek aurkezteko baldintzak eta prozedura ezartzen den. [2020-6217 xedapena - 7 orri.](#)

2020/06/17

- **ESTATUKO BURUZAGITZA.- COVID-19 funtsa.** 22/2020 Errege Lege-dekretua, ekainaren 16koa, COVID-19 funtsa sortzea arautzen duena eta hori banatzeko eta askatzeko arauak ezartzen dituena. [2020-6232 xedapena - 10 orri.](#)
- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA.- Osasun publikoa. Portuak eta aireportuak.-** PCM/531/2020 Agindua, ekainaren 16koa, 2020ko ekainaren 16ko Ministroen Kontseiluaren Erabakia argitaratzen duena, zeinaren bidez “Nazioarteko garrantzia duten osasun publikoko larrialdiei erantzuteko gaitasuna duten sarrera-puntu” gisa izendatutako Espainiako portu eta aireportuak ezartzen diren, Nazioarteko Osasun Araudian (RSI-2005) ezarritakoaren arabera, COVID-19ak eragin duen osasun krisiari aurre egiteko. [2020-6234 xedapena - 4 orri.](#)
- **EKONOMIA GAIEN ETA ERALDAKETA DIGITALAREN MINISTERIOA.- Alarma egoera. Bermeak.-** Ebazpena, 2020ko ekainaren 16koa, Ekonomia eta Enpresa Babesteko Estatu Idazkaritzarena, zeinaren bidez argitaratzen den 2020ko ekainaren 16ko Ministroen Kontseiluaren Erabakia, zeinaren bidez ezartzen diren enpresa eta autonomoei emandako maileguen, turismoaren sektoreko eta horrekin lotutako jardueretako ETE eta autonomoei emandako maileguen, eta enpresa eta autonomoei errepidez garraiatzeko erabilera profesionaleko motordun ibilgailuak erosteko finantzaketaren berme-lerroaren bosgarren zatiko terminoak eta baldintzak, eta baimendu egiten diren etorkizuneko ekitaldien kontura gastu-konpromisoak hartzeko mugak, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorren 47. artikuluan xedatutakoa aplikatuz. [2020-6236 xedapena - 7 orri.](#)

2020/06/18

- **INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO MINISTERIOA.- Alarma egoera. Nazioarteko turismoa.-** ICT/534/2020 Agindua, ekainaren 16koa, ekainaren 11ko SND/518/2020 Aginduaren eranskina luzatzen duena. Agindu horren bidez, Illes Balears autonomia erkidegoan korridore turistiko seguruak irekitzeko programa pilotu bat baimentzea arautzen da, COVID-19ak eragindako osasun krisiko egoeraren ondorioz barne mugetan ezarri diren kontrolak partzialki kenduta. [2020-6307 xedapena - 2 orri.](#)

- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA.- Mahastizaintza eta ardogintza sektorea.-** Akats zuzenketa, honako Errege Dekretu honena: 557/2020, ekainaren 9koa, zeinaren bidez ezohiko neurriak hartzen diren ardoaren sektorean COVID-19aren pandemiak eragin duen krisiari aurre egiteko, eta ardoaren sektorean komertzializazio-arau bat ezartzen duen, eta mahastizaintzaren eta ardoaren sektorean nahitaezko aitortpenen araudia eta ardoaren sektorearen babeserako programa aldatzen diren. [2020-6308 xedapena - 1 orri.](#)
- **EKONOMIA GAIEN ETA ERALDAKETA DIGITALAREN MINISTERIOA. Alarma egoera. Bermea.-** Akats zuzenketa, honako ebazpen honena: Ebazpena, 2020ko ekainaren 16koa, Ekonomia eta Enpresa Babesteko Estatu Idazkaritzarena, zeinaren bidez argitaratzen den 2020ko ekainaren 16ko Ministroen Kontseiluaren Erabakia, zeinaren bidez ezartzen diren enpresa eta autonomoei emandako maileguen, turismoaren sektoreko eta horrekin lotutako jardueretako ETE eta autonomoei emandako maileguen, eta enpresa eta autonomoei errepidez garraiatzeko erabilera profesionaleko motordun ibilgailuak erosteko finantzaketaren berme-lerroaren bosgarren zatiko terminoak eta baldintzak, eta baimendu egiten diren etorkizuneko ekitaldien kontura gastu-konpromisoak hartzeko mugak, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 47. artikuluan xedatutakoa aplikatuz. [2020-6309 xedapena - 5 orri.](#)
- **OSASUN MINISTERIOA.- Alarma egoera. Premiazko neurriak.-** SND/535/2020 Agindua, ekainaren 17koa, honako agindu hauek aldatzen dituen: SND/414/2020 Agindua, maiatzaren 16koa, alarma egoera deklaratu ondoren ezarritako estatu mailako zenbait murrizketa malgutzen dituen, normaltasun berri baterako trantsiziorako planaren 2. fasea aplikatuz, eta SND/458/2020 Agindua, maiatzaren 30ekoa, alarma egoera deklaratu ondoren ezarritako estatu mailako zenbait murrizketa malgutzen dituen, normaltasun berri baterako trantsiziorako planaren 3. fasea aplikatuz. [2020-6310 xedapena - 4 orri.](#)

2020/06/19

- **TRANTSIZIO EKOLOGIKORAKO ETA ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO MINISTERIOA. Hondakinak.-** 553/2020 Errege Dekretua, ekainaren 2koa, Estatuaren lurralde barruko hondakinen lekualdatzea arautzen duena. [2020-6422 xedapena - 22 orri.](#)
- **EKONOMIA GAIEN ETA ERALDAKETA DIGITALAREN MINISTERIOA. Administrazio prozedurak. Kudeaketa informatizatua.-** Ebazpena, 2020ko ekainaren 12koa, Idazkariordetzarena, aseguru eta berraseguruen banatzaileen administrazio erregistroan izena emateko tasa borondatez telematikoki ordaintzea ezartzen duena. [2020-6423 xedapena - 3 orri.](#)

2020/06/20

- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA.- Industria kalitatea eta segurtasuna.-** 542/2020 Errege Dekretua, maiatzaren 26koa, industria kalitatearen eta segurtasunaren alorreko zenbait xedapen aldatzen edo indargabetzen dituen. [2020-6472 xedapena - 32 orri.](#)
- **OSASUN MINISTERIOA.- Medikamentuak.-** Ebazpena, 2020ko ekainaren 19koa, Medikamentuen eta Osasun Produktuen Espainiako Bulegoarena, zeinaren bidez ezartzen den COVID-19ak eragindako osasun krisiaren kudeaketan funtsezkotzat jotako medikamentuen zerrenda, COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko prebentzio, euste eta koordinaziorako premiazko neurriei buruzko ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege-dekretuaren 19.1 artikuluan ezarritakoaren arabera. [2020-6474 xedapena - 3 orri.](#)

2020/06/22

- **BARNE MINISTERIOA.- Mugak.-**
 - INT/550/2020 Agindua, ekainaren 21ekoa, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioz berriz ezarri ziren Portugalekiko barne mugetan aldi baterako kontrolak luzatzen dituen. [2020-6508 xedapena - 2 orri.](#)
 - INT/551/2020 Agindua, ekainaren 21ekoa, hirugarren herrialdeetatik Europar Batasunera eta Schengen herrialde elkartuetara ezinbestekoak ez diren bidaien aldi baterako murrizketa aplikatzeko irizpideak luzatzen dituen, ordena publikoko eta osasun publikoko arrazoiengatik, COVID-19ak eragindako osasun krisia dela-eta. [2020-6509 xedapena - 4 orri.](#)

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2020/06/17

- **ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA.-** AGINDUA, 2020ko ekainaren 10ekoa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, haurren eta gazteen hezkuntza-aisialdiko jardueri berriro nola ekin arautzen duena. [2020-2355 xedapena - 31 orri.](#)

- **ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA.-** AGINDUA, 2020ko ekainaren 10ekoa, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira familia eta lana bateragarri egiteko laguntzen laguntza osagarrien eskabideen instantzia normalizatuak; laguntzok Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2020ko apirilaren 8ko Aginduan aurreikusi ziren, zeinaren bidez arautzen baitira familientzako laguntzen arloko neurri zehatzak COVID-19aren inpaktu ekonomikoari erantzuteko. [2020-2363 xedapena – 27 orri.](#)

2020/06/19

- **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**
 - 2/2020 FORU DEKRETU-ARAUUA, maiatzaren 5ekoa, COVID-19aren osas un krisiaren ondorioz zerga arloko neurri osagarriak ezartzen dituen. [2020-2387 xedapena - 9 orri.](#)
 - 3/2020 FORU DEKRETU-ARAUUA, maiatzaren 12koa, Udalak Finantzatzeko Foru Funtsagatik 2020an egin beharreko konturako ordainketak aldatzen dituen eta toki-erakundeentzako aurrekontu eta zerga arloko hainbat neurri ezartzen dituen. [2020-2388 xedapena – 3 orri.](#)
 - 4/2020 FORU DEKRETU-ARAUUA, maiatzaren 12koa, COVID-19 gaitzaren osasun krisiaren ondorioz aurrekontu arloko neurri jakin batzuk onartzen dituen. [2020-2399 xedapena – 3 orri.](#)

2020/06/19

- **LEHENDAKARITZA.-** 14/2020 DEKRETUA, ekainaren 18koa, Lehendakariarena, zeinaren bidez deklaritzen baita deseskaladarako planaren 3. fasea gainditu dela. Horrenbestez, indargabetuta geratuko dira alarma-egoeraren esparruan hartutako neurriak, eta 2020ko ekainaren 19ko 00:00etan hasiko da «normaltasun berria». [2020-2419 xedapena - 4 orri.](#)
- **OSASUN SAILA.-** AGINDUA, 2020ko ekainaren 18koa, Osasuneko sailburuarena, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriei buruzkoa, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 3. fasea gainditu eta gero. [2020-2421 xedapena - – 14 orri.](#)
- **EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA.-** EBAZPENA, 2020ko ekainaren 12koa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariarena, ekainaren 9ko 557/2020 Errege Dekretuan jasotako uzta-neurri berdea Euskadin aplikatzeari buruzkoa. Errege-dekretu horren bidez, ardoaren sektorean ezohiko neurriak hartu

ziren, COVID-19 pandemiak eragindako krisiari aurre egiteko, eta ardoaren sektorean merkaturatzeko arau bat finkatu zen, eta mahastizaintzaren eta ardogintzaren sektoreko nahitaezko aitorpenei buruzko araudia eta ardoaren sektoreari laguntzeko programa aldatu zituen. [2020-2429 xedapena – 3 orri.](#)

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2020/06/19

- **FORU ARAUAK.-** 8/2020 Foru Araua, ekainaren 10ekoa, 5/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, maiatzaren 12koa, baliozkotzeko dena, onesteko Arabako zerga-araudia egokitzea ekonomia eta enplegua babesteko premiazko neurri osagarriei buruzko apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretura. [2020-1461 xedapena - 1 orri.](#)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2020/06/16

- **GIZARTE EKINTZA SAILA** Bizkaiko Foru Aldundiaren 48/2020 FORU DEKRETUA, ekainaren 2koa, Osasun Mentaleko Zentroen Batzorde Iraunkorra sortu eta erregulatzen duena. [2020-113 \(I-374\) xedapena – 5 orri.](#)

2020/06/17

- **BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA ENPLEGUA, GIZARTE INKLUSIOA ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO SAILA**
 - Bizkaiko Foru Aldundiaren 52/2020 FORU DEKRETUA, ekainaren 9koa. Honen bidez, tokiko enplegua sustatzeko 3R programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira, Behargintza enplegu eta tokiko garapenerako zentroen eta toki-erakundeen bidez, COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz lanik gabe geratu diren pertsonak berrorientatzeko eta pertsona horiei beste enplegu bat emateko neurriak. [2020-114 \(I-376\) xedapena – 23 orri.](#)
 - Bizkaiko Foru Aldundiaren 57/2020 FORU DEKRETUA, ekainaren 16koa, zeinaren bidez COVID-19aren pandemiak sortutako krisiaren ondorioz onesten baitira kontrataziorako eta enplegua mantentzeko dirulaguntzen oinarriak eta deialdia. [2020-114 \(I-384\) xedapena - 17 orri.](#)

- **EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA.-** Bizkaiko Foru Aldundiaren 51/2020 FORU DEKRETUA, ekainaren 9koa; honen bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoan 2020ko ekitaldian aisia eta astialdiko koordinazio-egiturak mantentzeko diru-laguntza foralen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira. [2020-114 \(I-396\) xedapena - 11 orri.](#)
- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.-** 7/2020 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, ekainaren 16koa, zeinaren bidez egokitzeko tributu-neurriak sartzen baitira sozietateen gaineko zergan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergan, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauan, COVID-19a dela-eta. [2020-114 \(I-393\) xedapena - 6 orri.](#)

2020/06/18

• **OGASUN ETA FINANTZA SAILA**

- Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 1128/2020 FORU AGINDUA, ekainaren 16koa. Honen bidez, onetsi egiten dira Sozietateen gaineko Zergaren (Bizkaiko Lurralde Historikoan ari diren atzerrian eratutako errentak eratxikitzeko araubideko erakundeak) eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren (establezimendu iraunkorrak) autolikidazioa aurkezteko 200 eta 220 ereduak, eta 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako ekitaldietan ereduok telematikoki aurkezteko prozedura arautzen da. [2020-115 \(I-401\) xedapena - 161 orri.](#)
- Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren 1106/2020 FORU AGINDUA, ekainaren 11koa, zeinaren bidez garatzen baita 1/2020 Foru Dekretu Arauemailea, martxoaren 17koa, COVID-19aren ondoriozko presazko tributu-neurriei buruzkoa, zenbait tributu-jarduketa bideokonferentziaz edo elektronikoki egiteari dagokionez.- [2020-115 \(I-404\) xedapena - 3 orri.](#)

• **EKONOMIA SUSTATZEKO SAILA**

- Bizkaiko Foru Aldundiaren 59/2020 FORU DEKRETUA, ekainaren 16koa. Honen bidez, Txeko Teknologiko 2020 Programa arautzen duten oinarriak eta deialdia onartzen dira. [2020-115 \(I-383\) xedapena - 17 orri.](#)
- Bizkaiko Foru Aldundiaren FORU DEKRETUA 54 /2020, 9koa, abenduaren 17koa 206/2019 Foru Dekretua aldatzen duena. foru dekretu horren bidez, Ekintzailatza eta Gizarte Berrikuntza Programa 2020 urterako oinarri arautzaileak eta deialdi onesten dira. [2020-115 \(I-400\) xedapena - 4 orri.](#)

2020/06/22

- **GIZARTE EKINTZA SAILA.**

- Gizarte Ekintzako foru diputatuaren 29880/2020 FORU AGINDUA, ekainaren 19koa, zeinaren bidez prebentziorako, eusteko eta koordinaziorako neurriak ezartzen baitira Bizkaiko Lurralde Historikoko adinekoentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroetan. [2020-117 \(I-428\) xedapena - 3 orri.](#)
- 29881/2020 FORU AGINDUA, ekainaren 19koa, zeinaren bidez prebentzio-neurriak ezartzen baitira, Eusko Legebiltzarrerako 2020ko uztailaren 12ko hauteskundeetan boto-eskubidea baliatzeko aukera emateko, Bizkaiko Lurralde Historikoko adinekoentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroetan sartzeko. [2020-117 \(I-429\) xedapena - 3 orri.](#)

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.**

- Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren 1138/2020 FORU AGINDUA, ekainaren 17koa, zeinaren bidez garatzen baita 1/2020 Foru Dekretu Arauemailea, martxoaren 17koa, COVID-19aren ondoriozko presazko tributu-neurriari buruzkoa, lehendik geroratutako zorrak geroratzeko eskabideak onartu ezin direnerako zor horien gerorapenak behin baino gehiagotan galdu dutelako eraginkortasuna. [2020-117 \(I-421\) xedapena - 2 orri.](#)
- Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 1137/2020 FORU AGINDUA, ekainaren 17koa honako hau ebazten duena: tributu-arloko obligazio osagarri jakin batzuk ez eskatzea sozietateen gaineko zerga ordaintzetik partez salbuetsita dauden entitateei eta irabazteko asmorik gabeko erakundeen zerga-araubide berezia aplikatzen duten entitateei, baldin eta entitateok guztiok behar ez bezala aplikatu bazuten Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren apirilaren 1eko 707/2020 Foru Aginduak aitortpenak eta autolikidazioak aurkezteko ezarritako epearen luzatzea. [2020-117 \(I-422\) xedapena - 3 orri.](#)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala):

2020/06/16

- EUROPAR BATASUNEKO INSTITUZIO, ORGANO ETA ERAKUNDEETATIK DATORREN INFORMAZIOA.- Batzordearen ondorioak, Europaren etorkizun digitala egituratzeari buruz.- [CI 202/01](#)

2020/06/18

- Batzordearen 2020/798 (EB) Betearazpen Erabakia, 2020ko ekainaren 17koa, honako hau aldatzen duena: Batzordearen 2020/627 (EB) Betearazpen Erabakia, zenbait estatu kidetan H5N8 azpimotaren patogenotasun handiko hegazti-gripearekin lotutako babes-neurriari buruzko 2020/47 (EB) Betearazpen Erabakiaren eranskina aldatzen duena [C(2020) 4134] (1) zenbakiarekin jakinarazia] (1) [L 194/6](#)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAIO, 26 - 48009 BILBAO